



PAZIENTEENTZAKO INFORMAZIOA

ODONTOLOGIA KLINIKAKO ZERBITZUA ERABILTZEKO

Paziente agurgarria: zure segurtasuna, familiarena eta klinikako langile guztiena bermatzeko, segidan adierazita dauden argibideei zehatz-mehatz jarraitzeko eskatzen dizugu.

1. **Ez etorri klinikara, aldez aurretik telefonoz deitu gabe.**
2. **Hitzordua eskatzeko deitzen duzunean, galdetuko dizugu:**
 - a. **Zergatik etorri nahi duzun kontsultategira.**
 - b. **Azkeneko 14 egunetan izan ote duzun koronabirusaren sintoma edo zeinu ohikoenetakoren bat: sukarra, eztul lehorra, eztarriko mina, sudurreko kongestioa, nekea, buruko mina, mialgia, dastamen galera, usaimen galera, beherakoa eta digestio eragozpenak edo ondoez orokorra.**
 - c. **Harremanetan edo bizitzen egon ote zaren koronabirusa duela susmatzen den pertsona batekin edo gaitza duen batekin.**
 - d. **Berrogeialdian ote zauden COVID-19a izan duzulako.**

Mesedez, izan zintzoa erantzutean, oso garrantzitsua baita zuretzat eta denontzat.

3. **Hitzorduaren egunean:**
 - **Deitu telefonoz hitzordua bertan behera uzteko, honako hauek badituzu: sukarra, eztul lehorra, eztarriko mina, sudurreko kongestioa, nekea, buruko mina, mialgia, dastamen galera, usaimen galera, beherakoa eta digestio eragozpenak edo ondoez orokorra.**
 - **Etorri adierazitako orduan.** Ez etorri askoz lehenago, harreran eta itxarongelan beharrezkoak ez diren itxaronaldiak eta pilaketak saihesteko.
 - **Etorri zu bakarrik hitzordura, beste inor gabe, non eta ez den ezinbestekoa (adingabeak edo laguntza behar duten pertsonak); kasu horretan, pertsona bakar batek lagunduta etor daiteke.**

- **Maskararekin etorri.**
- **Etorri eskumuturrekoak, erlojuak, lepokoak edo belarritakoak kenduta.**
- **Ez ekarri poltsarik.**
- **Ezin izango duzu mugikorra erabili odontologia klinikan.**
- **Ezin izango dituzu hortzak eskuilatu odontologia klinikako komunitan.**
- **Erreparatu Ikastegiko informazio karteletan eta seinaleetan jartzen duenari, segurtasun tarreak betetzen direla bermatzeko.**
- **Garbitu oinetakoen zolak odontologia klinikako zerbitzurako sarreran dagoen alfonbratxoan.**
- **Klinikara iristean tenperatura neurtuko dizute, gel hidroalkoholikoarekin 20 segundoz eskuak igurzteko eskatuko dizute, eta zenbait jarraibide emango dizkizute.**
- **Beste paziente batekin gurutzatzen bazara, gutxienez 2 metroko tartea utzi behar duzue elkarren artean.**
- **Ez ibili korridoreetan eta ez ukitu heldulekurik.**
- **Ahal dela txartelarekin ordaintzea komeni da, eta ez eskudirutan (kutsadura birikoa izateko probabilitatea txikiagoa da).**